



IKASTARO OSAGARRIA
ESPAINOLA ATZERRIKO HIZKUNTZA MODUAN IRAKASTEKO
GAITASUNEN GARAPENA ETA IKUSPEGIEN BERRIKUSPENA (3. E.)

INFORMAZIO OROKORRA

IKASTURTE AKADEMIKOA: 2018-2019

ARLOA: Humanitateak

KREDITUAK: 5,6 ECTS (*) kreditu

MATRIKULAREN PREZIOA: 380 euro

ZUZENDARITZA AKADEMIKOA: **Ainhoa Gómez Pintado** (Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Nazioararteratzea eta planifikazio linguistikoaren zuzendaria).



AURKEZPENA:

Gure helburu nagusietako bat da gaztelania irakasten ariko diren irakasleen prestakuntza. Prestakuntza hori behin eta berriro eskatu dute, ez bakarrik gure unibertsitatean jada graduatuta zeuden pertsonen, baita bigarren zikloko ikasleek eta bigarren hizkuntzen irakasleek ere. Horiek, orain arte, beste unibertsitate edo zentro eskudunetara joan behar izaten zuten ikasketa horiek osatzeko.

Cervantes Institutuarekin lankidetzeta hitzarmena sinatu ondoren, arlo linguistikoa, didaktikoa eta metodologikoa bezalako hainbat gaitara bideratutako, eta estatu osotik bertaratutako profesional ospetsuek emandako prestakuntza hori gauzatu ahal izan dugu.

Ikastaro honek GAH (Gaztelania Atzerriko Hizkuntza) ikasten laguntzeko tresna eragileak eta jarduketa pedagogikoko ereduak eskaintzen ditu, hainbat gaitasun eta konpetentzia garatuz. Elkarlanean oinarritutako ikaskuntzatik jardun profesionaleraino, ingurune digitaletan oinarritua, testuen laguntzaz lan sistematikoa edo sekuentzien eta unitate didaktikoen programazioa ahaztu gabe. Berrikuntza etengabekoa den esparru batean, hizkuntzak, oro har, eta gaztelania atzerriko hizkuntza gisa, bereziki, irakasteko esperientzia, metodologia eta tresna berriak aurkezten dira. Izaera akademiko eta profesionaleko ikastaroa, parte hartzearen bitartez ikasleen ikaskuntza aktiboan oinarritua dago. GAHren esparruan aldez aurretik ezagutzak



badituzten pertsonak zein esperientzia berri bat bezala bizi duten pertsonak egin ahal izango dute ikastaroa.

Ikastaro hau irakasleen konpetentzia nagusiak garatzera bideratuta dago:

- Ikaskuntza egoerak antolatzea
- Kulturarteko komunikazioa erraztea
- Lana burutzeko IKTez baliatzea

HELBURUAK

- Gaztelania atzerriko hizkuntza gisa ikasi eta jakiteari buruzko ikuspegiak aztertzea.
- Beste hizkuntza batzuetako hiztunek gaztelaniazko gramatika ikasterakoan dituzten zailtasunei buruz kritikoki eztabaidatzea.
- Gaztelania atzerriarrei irakasteko funtsezko alderdi metodologikoetan sakontzea eta irakasteko nahiz ikasteko metodologia berriak aplikatzea.
- Ikuspegi kultural desberdinak ulertzeko beharrezko diren jarrera, ezagutza eta trebetasunak ezagutzea.
- GAHren irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuko trebetasunak eta gaitasunak optimizatzea IKTak eraginkortasunez erabilita.

EDUKIAK ETA IRAKASLEAK

- Jarduera ludikoak GAHko ikasgelan. Entzumenezko ulermena GAHko ikasgelan. **Cristina Urbizu Pérez.** (UPV/EHU).
- Irakaskuntza teknikak, ikasgelako planak eta material eta baliabideak ikasgelan erabiltzea. Blanca Palacio Alegre.
- GAHren lexikoa irakastea. **Alba Milà García.**
- Diagnostiko-**teknikak eta zuzenketa fonetiko**a GAHko ikasgelan. **José María Lahoz**-Bengoechea.
- Gaztelania etorkin helduei irakastea. Premien analisitik ikasteko **egoeren antolatza**ra. **Félix Villalba Martínez.**
- Etorkinei irakastearen orientabideak eta baliabideak testuinguru ezberdinetan: lan helburuak, irakurketa eta idazketa maila baxuko **ikasleentzako arreta eta eskola testuingurua.** **Maite Hernández García.** (G2Hko irakaslea etorkinentzat eta irakasleen hezitzailea).
- Eskolan gramatika lantzeko orientazio kognitiboa (oinarrizko **kontzeptuak eta jarduerak**). **Lourdes Miquel López.**



- IKTek eta ikuspegi didaktiko berriek atzerriko hizkuntzak irakasteko ematen dituzten aukerak. Joan-**Tòmas Pujolà Font (Hizkuntzalaritza Aplikatuko doktorea** Edinburgoko Unibertsitatean, honako arlo hauek ikertzen ditu nagusiki: ordenagailuz lagundutako ikaskuntza, hizkuntzak ikasteko autonomia eta hizkuntzetako irakasleen prestakuntza).

ZURE BILA GABILTZA

Bihur zaitetz gaztelania atzerriko hizkuntza irakasle!

Lanbide honetan hasi nahi baduzu edo lanbide horren alderdi jakinetan sakondu nahi baduzu, hauxe da zure ikastaroa! Metodologia praktiko eta parte hartzaile baten bitartez, hezkuntza esparru hau ezagutu ahal izango duzu edo profesional gisa zuk hobetzeko zure ezagutza didaktikoak, linguistikoak eta kulturalak eguneratu ahal izango dituzu.

Saio bakoitzean irakasleak gaiaren aurkezpena egingo du; eta ondoren, baliabide pedagogikoen iturri desberdinetan gaur egun aurki daitezkeen jarduerak analizatuko ditu. Lanak taldeka eta bakarka egingo dira, saio bakoitzeko edukietara egokituak. Lan horien artean, edukiak pixkanaka bereganatzeko jarduera kontrolatuak egitea, eta material didaktikoak analizatzea, egokitzea eta horiek erabiltzen trebatzea azpimarratu behar dira.

Ikastaroa jarraitzeko behar den material didaktiko guztia edukiko duzu, eta ikastaroa amaitzean bertaratze ziurtagiria emango zaizu.

Gainera, ikastaroa egiteagatik UPV/EHUko Graduako ikasketetan aitortpena jaso ahal izango duzu, gehienez 2 ECTS arte.

Bertan espero zaitugu!

IRTEERA PROFESIONALAK:

Azken urteetan atzerrian gaztelania atzerriko hizkuntza moduan irakasteko irakasleen eskaera handitu egin da.

Jarraian, irteera profesional batzuk aipatuko ditugu:



Espainian

Eskolak eta akademiak

Gure herrialdea bisitatzen duten truke programen ikasleen bolumena eta herritartasun espainiarra lortzeko hauek hizkuntzaren ezagutza maila frogatzeko duten beharra kontuan hartuta, ikastegi askok gaztelania eskolak ematen dituzte Euskadiko hiru hiriburuetan.

GKEak eta elkarteak

Espainiara heltzean etorkin askok gaztelania ikasteko duten beharrak bultzatuta, GKEetan eta elkarteetan gaztelania ikasteko eskolen eskaintza nahiko zabala da.

Espainiatik kanpo

Cervantes Institutua

Cervantes Institutuak, deialdi publiko bidez, gaztelania atzerriko hizkuntza irakasle lanpostuak eskaintzen ditu. Deialdiak urtean behin egin ohi dira eta hiru fase dituzte:

- Lehen fasea: Merituen lehiaketa
- Bigarren fasea: Azterketa idatzia
- Hirugarren fasea: Elkarrizketa

Aukeraketa prozesuan parte hartzeko honako hau frogatu beharko da:

- Espainiako Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak onartutako edo homologatutako lizentziatura edo gradua.
- Gaztelania atzerriko hizkuntza gisa irakasten esperientzia edukitzea.
- Gaztelania atzerriko hizkuntza edo bigarren hizkuntza gisa irakasteko prestakuntza espezifikoa.
- Ingelesez edo frantsesez komunikatzeko nahikoa kompetentzia edukitzea.

Informazio gehiago nahi baduzu, sar zaitez haien web orrian.

Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa

Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak gaztelania irakasle gisa atzerriko hainbat programatan lan egiteko aukera eskaintzen du. Atal elebidunetan lan egiteko postuen eskaintza; Estatu Batuetan edo Kanadan irakasle bisitari gisa, edo Elkarrizketa Laguntzaile gisa.



Deialdiak desberdinak eta horietako bakoitzerako baldintzak haren web orrian aurkituko dituzu, Nazioarteko Jarduera atalean.

Irakurlegoak

Espainiako Kanpo Harremanetako eta Lankidetzako Ministerioak eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentziak, atzerriko unibertsitatetan, gaztelania atzerriko hizkuntza irakasle moduan, eskolak emateko aukera eskaintzen dute, hizkuntza eta kultura hispaniarreko programak indartzeko asmoz. Gaztelania atzerriko ikastegitan eta unibertsitatetan irakatsi nahi duten gaztelania, Filologia, Literatura, Hizkuntzak, Humanitateak, Itzulpengintza, Interpretazio edo Linguistikako diziplinetan goi mailako titulazioa duten nazionalitate espainiarra duten pertsonen zuzenduta daude.

MAEC-AECID deialdiei buruzko informazio gehiago nahi baduzu, bisita ezazu AECID web ataria: www.aecid.es/ES/becas-y-lectorados/convocatorias-maec-aecid

Eskolak eta akademiak

Espainian gertatzen den moduan, GAHren irakaskuntzan gero eta prestakuntza hobea eta esperientzia zabalagoa eduki, aukera gehiago izango dituzu lanpostua eskuratzeko.

Iturria: <https://revistadigital.inesem.es/idiomas/que-salidas-profesionales-tengo-como-profesor-de-ele/>

BALDINTZAK

Ikastaroak honako pertsona hauei zuzenduta daude:

- Filologietako antzinako planetako tituludunei (batez ere Filologia Hispanikokoak), itzulpengintza eta interpretazioko tituludunei, irakasle tituludunei eta pedagogiako tituludunei.
- Filologiako, Euskal Ikasketetako, Ingeles Ikasketetako, Itzulpengintza eta Interpretazioko, Pedagogiako graduatuei eta Irakasleen Eskolako graduatuei.
- Euren ezagutzak eta esperientzia zabaldu nahi dituzten bigarren hizkuntzetako irakasleei (berezi, gaztelania bigarren hizkuntza gisa irakasten ari diren irakasleei).



- Bigarren fase batean, eta beste titulazio batzuen aurretik, Humanitatetako Graduetako tituludunak eta ikasleak (3. eta 4. mailak) onartuko lirateke.

Gehienez 35 lagunek (40ra zabal daiteke) hartu ahal izango dute parte. Bertaratzea derrigorrezkoa izango da eta eskoletara ez joateak —arrazoia edozein dela— ezingo du ikastaroaren iraupen osoaren % 15 gainditu. Ikasleen akreditazioa bertaratze hori betetzeak baldintzatuko du.

IRAKASKUNTZA

ESKOLAK EMATEKO DATAK: 2019/02/15tik 2019/03/30ra

ESKOLAK EMATEKO LEKUA:

ELURRETA ERAIKINA - NIEVES CANO KALEA, 33 - 01006 VITORIA-GASTEIZ – OSTIRALETAN 16:00ETATIK 20:30ERA / LARUNBATETAN 09:00ETATIK 13:30ERA

IRAKASTEKO HIZKUNTZA: GAZTELANIA

INFORMAZIOA/KONTAKTUA

IKASTEGIA: Arabako Campuseko Errektoreordetza - Nazioarteko harremanetako bulegoa

SAIL EDO ORGANO ARDURADUNA: UPV/EHUko Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetza

HELBIDEA: Izardui Komandantearen Kalea, 2. 01006 – Vitoria -Gasteiz

TELEFONOA: 34 945 013356

HELBIDE ELEKTRONIKOA: maria.carpintero@ehu.eus

WEB ORRIA: <https://www.ehu.eus/es/web/nazioarteko-harremanak/espainola-atzerriko-hizkuntza-moduan-irakasteko-gaitasunen-garapena-eta-ikuspegi-berrikuspena>

(*) ECTS kreditu bat 25 orduren baliokide da.